


Windows Millenium Edition

Etxeko ordenagailuentzako sistema eragile berria

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Microsoft ez da nekatzen. Erabiltzaileen artean Windows 98k behar duen onarpena oraindik izan ez duen arren, Windows berria merkaturatu du. Baina zeinentzat? Gogoratu Windows 2000 kaleratu zenean hura Windows NTren ondorengoa zela esan genuela, eta laster aterako zela Windows 98ren ondorengoa. Ba hauxe da. Millenium Edition edo Me izenez kaleratu berri duten hau da etxeko erabiltzaileok erabiliko duguna laster batean. Hori guztia etxean PCa izanez gero noski, baina Macintosh-a duten guztientzat ere badago berrikuntzarik. Apple aspaldian garatzen ari den MacOS X sistema eragilea ere kaleratzear dago, baina honetaz hurrengo zenbakian hitz egingo dugu.



BAINA ZEIN BERRIKUNTZA ESKAINTZEN DITU WINDOWS BERRI HONEK? Itxuran gauza handirik ez, baina, Microsoft-ek dioenez, etxeko erabiltzailearengan pentsatuz garatutako Windows-a da berri hau. Horregatik, mundu digitalarentzako Windows bat dela ere esan daiteke, irudi digital eta soinuekin lan egiteko bereziki pentsatuta baitago. Microsoft-en esanetan, jendeak etxeko ordenagailua erabiltzen duen gauzetara bideratu dute, hau da, dibertsioa, informazioa atzitzea eta komunikazioa. Honako hauek dira eskaintzen dituen berrikuntza nagusiak:

Multimedia etxean

Windows Me-k multimedia etxean lantzeko aukera berriak eskaintzen ditu. Lehendik ere ezagun genituen *Windows Media Player* edo *DirectX* teknologien bertsio berriak ditu; besteak beste, mu-

sika zuzenean Internet-etik entzuteko aukera ematen digu. Baina berrikuntza nagusia etxean bideoa editatzeko gehitu duten aplikazioa da. *Windows Movie Maker* izeneko softwarea da hori, eta bideo digitalaren arrakastari aurre egiteko sortutako aplikazioa da. Bideoak bezala kamera digitalak ere gero eta zabalduego daudenez, norberaren argazki-albuma osatu eta argazkiak manipulatzeke softwarea ere badu.



Windows Movie Maker erabiliz gure pelikulak sor ditzakegu.

Internet eta inprimatzea

Microsoft-ek Interneten alde egin duen apustuari eusten dio, eta Windows berri honek ere baditu hainbat berrikuntza zentzu honetan. Betiko nabigatzaile eta posta-kudeatzaileaz gain, berrikuntza nagusia Internet-era konektatuta dauden inprimagailuen bidez zuzenean dokumentuak inprimatzeko aukera da. Hori



Inprimatzeko aurrebista inprimatuko duguna nola azalduko den erakusten digu.

erabiliz munduko beste puntan dagoen inprimagailu batean inprima dezakegu gure etxetik. Gainera, inprimatzeko aurrebista bat ere gehitu du, eta horrela inprimatu behar duguna nola azalduko den aurrez ikusi dezakegu.

“*etxeko erabiltzailearengan pentsatuz garatutako Windows-a da berri hau*”

Sareak erraz eta azkar


Aurreko bertsio guztiekin egin duten bezala, Windows honek ere *Plug and Play* delakoa betetzen duela sinestarazi nahi digute. Agian orainoan egia izango da, baina ezagutzen ditugu aurreko kasuak nolakoak izan diren. Dena den, oraino honen berrikuntza nagusietakoa zera da: etxean sare bat ezartzen lagunduko digun morroia dakar. Haren bidez, etxean ditugun ordenagailuekin sare bat osatu ahal izango dugu; horretarako, Ethernet edo telefono-kable arrunta era-

Etorkizuna hemen da: ordenagailu kuantikoa

Duela oso gutxi arte, etorkizunari buruz hitz egiten ariko ginen ordenagailu kuantikoaz aritzean. Baina IBMk etorkizuna oso hurbil dugula erakutsi digu berri ere. Konpainia honek munduko ordenagailu kuantiko aurreratuen aurkeztu berri du. Ordenagailu kuantikoen berezitasun nagusia honakoa da: siliziozko txipak erabili beharrean, atomoak erabiltzen ditu prozesadore eta memoria gisa. Horretarako, ‘bit kuantiko’ edo ‘qubit’ izenez ezagutzen diren atomo mailako elementuak erabiltzen ditu oinarri gisa, eta horien elkarrekintzaz gauzatzen ditu eragiketak. Honekin Moore-en lege famatua bere mugaraino eramatea lortu dute; lege honen arabera, zirkuituak gero eta txikiago izango dira 2020. urtera arte, orduan atomo eta molekulen tamainakoak izango baitira. Orainoan hogeituroko aurrea hartu diote teoriari.

IBMk garatu duen ordenagailu honek bost qubit ditu bereziki garatutako molekula baten barruan. Molekula hori duen ordenagailua erabiliz, pauso bakarrean bete zuten ordenagailu arrunt batek lau ziklotan betetzen duen eragiketa bat. Ordenagailua garatu duen taldeko zuzendari den I. Chuang-ek hau esan du: “Ordenagailu kuantikoek denbora laburrean gauzatu ahal izango dituzte gaur egungo ordenagailurik garatuenean milioika urtetan lortuko ez litzuketako eragiketak”.

Teknologia hori guztiz berria bada ere, informatikaren etorkizuna hemendik joango dela garbi dago.



ARTXIBOKOA

bili ahal izango ditugu. Horrez gain, konexio bakarra erabiliz, erabiltzaile bat baino gehiago aldi berean Internet-era konektatzen utziko digun sistema ere gehitu du.


Arazoak konpondu

Aurreko Windows-ek ematen dituzten arazo guztiak ikusita, horiek konpontzeko tresnak gehitzea erabaki du Microsoft-ek. Beraz, eta hau ere teoriarik gabe, eta hain urdin madarikatu horiek ez ditugu gehiago jasango. Ikusiko dugu hala ote den! Sistemaren konfigurazioa berreskuratzeko sistemak edo baimenik gabeko idazketak murrizteko babesak ezartzen ditu Windows berriak. Ea orainoan benetan egonkorra den!

Horiek dira azaletik begiratuta Windows berriak eskaintzen dizkigunak. Orain



Sistemaren konfigurazioa berreskuratzeko aplikazioaren itxura.

norberarena da azken erabakia: benetan merezi al du gure ordenagailuari sistema eragilea berri aldatea? Zertan hobetuko dugu? Ba al dugu nahikoa disko gogor, nahikoa memoria honekin lan egiteko? Merezi al du ekipoa handitzea edo berria erostea horretarako? Norberak ikusiko du zer egin. 

ARTXIBOKOA